



ERABAKIA, KIROL JUSTIZIAKO EUSKAL BATZORDEARENA, CD TRINTXERPE-K GIPUZKOAKO FUTBOL FEDERAZIOKO LEHIAKETA ETA KIROL DIZIPLINAKO BATZORDEAK 2015-EKO OTSAILAREN 3-AN HARTUTAKO ERABAKIAREN AURKA AURKEZTUTAKO ERREKURTSOA EZESTEN DUENA

Esp. zk: 6/2015

AURREKARIAK

LEHENA.- CD Trintxerpe taldeko presidenteak errekurtsoa (132218 zk.) jarri du Gipuzkoako Futbol Federazioko Lehiaketa eta Kirol Diziplinako Batzordeak (GFFLKDB aurrerantzean) 2015eko otsailaren 3an hartutako erabakiaren aurka.

BIGARRENA.- Kirol Justiziako Euskal Batzordeak (aurrerantzean, KJEB) errekurtso hori izapidetzea onartu zuen, eta errekurritutako aldeari jakinarazi zion, hamabost laneguneko epean zegokion alegazio-idazkia aurkez zezan eta, behar izanez gero, egokitzat jotako froga-izapideak proposa zitzan.

HIRUGARRENA.- Bai GFFLKDBk bai [REDACTED] abokatuak – Aretxabaleta Kirol Elkarte-UDAren izenean eta ordezkari moduan–, hurrenez hurren martxoaren 13an eta 17an erregistratutako idazkien bidez, egindako errekerimendua bete dute, alegazioen idazkia bidalita.

ZUZENBIDEKO OINARRIAK



LEHENENGOA.- Uztailaren 23ko 391/2013 Dekretuak, eskola-kiroleko lehiaketen diziiplina-araubideari buruzkoak, 4.1.b) eta 40.2 artikuluetan xedatutakoaren arabera, KJEBk du errekurtsio hau ebazteko eskumena.

BIGARRENA.- Orain epaitzen ditugun errekurtsioen jatorrian CD Trintxerpek GFFLKDBn honako honengatik aurkeztutako salaketa dago: Aretxabaleta, inskribatuta 20 jokalaria zituela, 15ekin joan zen partidara, baina inskribatuen % 80ekin aurkeztu behar zen; hau da, 16 jokalarirekin.

GFFLKDBk otsailaren 3an egindako bileran hau erabaki zuen: “Aintzat ez hartzea Trintxerpe taldeak jarritako demanda, eta aktan jasotako haur-mailako partidaren emaitzari eustea, ezein zigorri buruzko ezer aipatu gabe”.

CD Trintxerpek erabaki horren aurka jo du.

HIRUGARRENA.- Alde guztiek onartzen dute zein den eztabaidaren helburua: “10. zirkularra” deritzon jasotako edukia zuzen interpretatu den ala ez erabakitzea; izan ere, honako hau dio: “Batzar Nagusiak erabakita, taldea osatzen duten jokalarien % 80k partida bakoitzerako deituta egon behar du. Araua betetzen ez bada eta hori salatuz gero, Lehiaketa eta Kirol Diziplinako Batzordeak aintzat hartuko du erreklamazioa, eta egokiena ebatziko du”.

LAUGARRENA.- Arau aplikagarria identifikatuta, aldeek honako hauek kontrajartzen dituzte:

1) Trintxerpe: **a)** argi eta garbi frogatu da ez zela bete araua, 15 jokalaria agertu zirelako, 16 izan beharrean; eta, **b)** hala egokituz gero, partida jokatu baino lehen frogatu behar zen zergatik ez ziren azaldu gainerakoak, eta ez ondoren, kasu honetan gertatu zen bezala.



2.- Aretxabaleta: bat egin zuen GFFLKDBren tesiarekin.

3.- GFFLKDBk: **a)** egia da Aretxabaleta 15 jokalarirekin agertu zela, 16rekin izan beharrean –inskribatuen %80–, baina egia da, halaber, behar bezala frogatu zela zergatik ezin izan ziren azaldu beste bostak (bi lesionatuta zeudelako; bi, gripeak jota; eta bosgarrena, atzerrian); eta, **b)** ez-betetzearen ondorioa ez dago hertsiki finkatuta, adierazita dagoen moduak aukera ematen duelako inguruabarrak neurtzeko.

BOSGARRENA.- Eztabaidaren xedea horrela zehaztuta, kontua da ebaztea GFFLKDBk hartutako erabakia bat datorren ala ez aplikatzeko arauan jasotakoarekin; izan ere, arauak, gogora dezagun, honako hau dio: “Batzar Nagusiak erabakita, taldea osatzen duten jokalarien % 80k partida bakoitzerako deituta egon behar du. Araua betetzen ez bada eta hori salatuz gero, Lehiaketa eta Kirok Diziplinako Batzordeak aintzat hartuko du erreklamazioa, eta egokiena ebaztuko du”.

Argia eta begi-bistakoa da hizpide dugun kasuan ez dela bete eskatzen dena, baina hori bezain egia da ondorioa ezin dela izan erakunde errekurtsogileak honela zehazten duena: “Azaldutako argudio argi hauengatik guztiengatik, espero dugu batzorde honek aintzat hartzea gure lehen demanda, Gipuzkoako Lehiaketa Batzordearen ebazpena balio gabetzea, eta partida UD Aretxabaletak galdu zuela erabakitzea, eta CD Trintxerpek irabazi”.

Eta, hori, inguruabarren arabera neurtu behar direlako horrela jokatu izanaren ondorioak, inguruabarrak faktore objektibo batzuk baino ez baitira – gaixotasunak eta bidaia–, partidaren presentzia fisikoa izan zezaten eragozten zutenak, eta hura kausa zuzena da haiek ez bertaratzeko, eta, beraz, taldea erantzukizunetik salbuesteko.



Horregatik guztiagatik, batzorde hau bat dator hartutako erabakiarekin, uste baitu egindako interpretazioa Kode Zibilaren 3.1 artikuluan jasotako interpretazio-irizpideen arabera dela.

Aurreko hori guztia aintzat hartuta, KJEB honek

ERABAKITZEN DU

Aintzat ez hartzea CD Trintxerpek Gipuzkoako Futbol Federazioko Lehiaketa eta Kirol Diziplinako Batzordeak 2015eko otsailaren 3an hartutako erabakiaren aurka jarritako errekurtsua.

Erabaki honek bide administratiboa agortzen du, eta aukerako berraztertze-helegitea jarri ahal izango da haren kontra, Kirol Justiziako Euskal Batzordearen aurrean, hilabeteko epean, jakinarazpen-egunaren biharamunetik zenbatzen hasita. Bestela, administrazioarekiko auzi-errekurtsua aurkeztu ahalko da Donostiako Administrazioarekiko Auzietarako Epaitegian edo, errekurtsogileek hala nahi badute, beren bizilekuari dagokion Epaitegian, bi hilabeteko epean, jakinarazpen-egunaren biharamunetik zenbatzen hasita, uztailaren 13ko 29/1998 Legeak, Administrazioarekiko Auzien Jurisdikzioa arautzen duenak, xedatutakoaren arabera, beti ere.

Gasteizen, 2015eko apirilaren 13an.

José Ramón Mejías Vicandi

KIROL JUSTIZIAKO EUSKAL BATZORDEKO LEHENDAKARIA